

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Behobia eta Bertiz arteko bizikleta-ibilaldi baten bidez ospatuko dute irailaren 29an Europako Lankidetzaren Eguna

*Helduentzako eta familientzako ibilbideak izango dira, eta mugaz gaindiko Circudouce proiektuaren barruan birgaitu den bide berdetik joango dira.*

Viernes, 20 de septiembre de 2013

Behobia eta Bertiz arteko bide berdetik ibiliko den bizikleta-ibilaldiaren bidez ospatuko dute datorren irailaren 29an Europako Lankidetzaren Eguna. Helduentzako eta familientzako ibilbideak egongo dira. Ekitaldia mugaz gaindiko Circudouce proiektuko kideek antolatu dute. Haiek dira bide berdea birgaitzearen sustatzaileak.

Proiektu horretarako finantzaketaren zati bat lortu dute Pirinioetako Lan Elkarteak kudeatzen duen FEDER funtsetatik.

Europako Lankidetzaren Egunaren helburua herritarrek Europar Batasunak mugaz gaindiko lankidetzak sustatu eta indartzeko eta horrek lurraldeari eta biztanleei ekartzen dizkien onurak erakusteko burutzen dituen ekintzez jabetzea da.

Bizikleta-ibilaldia, egun lehendakaritzam Nafarroa duen Pirinioetako Lan Elkartearen laguntza jaso duena, gaur goizean aurkeztu dute Prudencio Induráin Larraya Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak, Cristina Arcaya Pirinioetako Lan Elkarteko idazkari nagusiak eta Izaskun Goñi Bertizko Turismo Partzuergoko kudeatzaileak. Azken hori Circudouce lankidetzak-proiektuaren Nafarroako kidea da.

### Hiru ibilbide mota

Ekimenaren izena Euroziklo-EuroVeló 1 bizikleta-ibilaldia da, eta hiru ibilbide mota izango ditu: bat helduentzat, 42 km-koa, eta beste bi familientzat, 15 eta 7 km-koak. Lehen bi ibilbideetako bat egin nahi izanez gero, honako helbide honetan eman beharko da izena:



Behobia eta Bertiz artean berreskuratu den bide berdearen irudia.

<http://www.deporbox.com/eventov2/6marchabttbidasoasumbillabertiz/portada>. Horretarako epea irailaren 26an (osteguna) amaituko da.

Endarlatsa, ibilbide laburrenaren (7 km) amaieran jarriko da animaziogune handiena. Sustapenerako materialaren bidez proiektuari buruzko informazioa eskaintzeko karpa jarriko dute. 2013ko Europako Lankidetzaren Eguna ere ospatuko da. Itzulerako ibilaldia hasi aurretik atsedean eta indarrak hartu ahal izango dira bertan. Haur eta helduentzako animazioa egongo da, eskualdeetako produktuak dastatu ahal izango dira, eta mugarekin, lankidetzarekin eta hizkuntzekin loturiko gaiak buruzko jolasak jarriko dira haurrentzat.

Ibilbideei buruzko informazio gehiago:

-7 km-ko familientzako ibilbidea: Irun (Behobia) -- Endarlatsa (ez da izenik eman behar). Txikienez eta bizikletan ibiltzeko ohiturarik ez dutenentzako ibilbide laburra da. Irungo Nazioarteko Zubitik (Behobia) hasiko da. Bizikletarik izan ez baina parte hartu nahi dutenek ere ibilbidea egiteko aukera izango dute, antolatzaileek erabilgarri jarriko dituzten bizikletak erabiliz (horietako batzuk elektrikoak eta haurrentzat izango dira). Bizikletak amaitu arte egongo da aukera. Bizikletak Endarlatsan zein Irunen itzuli ahal izango dira.

-15 km-ko familientzako ibilbidea: Sunbilla -- Bertizko Natur Parkea (izena eman behar da). Parte-hartzaileak 12:00etan aterako dira Sunbillako garbitegitik eta Bertizko Natur Parkera iritsiko dira 13:00ak inguruan. Bertiztik Sunbillara joan nahi dutenek autobus-zerbitzua izango dute erabilgarri 11:30ean Bertizko aparkalekutik. 12:00etan helduko dira Sunbillara ibilbidea egin dezaten.

-42 km-ko helduentzako ibilbidea: Irun (Behobia) -- Bertizko Natur Parkea (izena eman behar da). Distantzia luzeeneko ibilbidea da, eta 18 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte. 10:00etan hasiko dira akreditazioak banatzen Irungo Nazioarteko Zubian (Behobia), eta ibilaldia 10:30ean hasiko da. Bertiztik Irunera joan nahi dutenek autobus-zerbitzua izango dute erabilgarri. Bertizko aparkalekutik aterako da 9:30ean Irunerantz (Behobia). Aurreikusitako denaren arabera, 13:00ak aldera iritsiko dira parte-hartzaileak Bertizko Natur Parkera. Han, jateko zerbait eta opariak hartuko dituzte parte-hartzaileek. Irteeratik ibilbidearen amaierara, Lesaka, Igantzi, Sunbilla, Doneztebe, Legasa, NARBATE eta Oieregi herrietatik pasatuko dira.

### **Europako Lankidetzaren Eguna**

Gaur egun, Europar Batasunak lurralde-landetzari loturiko 70 programa baino gehiago ditu 40 herrialde inguru hartzen dituztenak. Herrialde horiek EUkoak zein ondoko herrialdeak dira. 90eko hamarkadaren hasieratik, Europar Batasunarekin batera finantzatutako 30.000 proiektu baino gehiagoren bidez Europako herritarren bizitzak hobetu dira, mugak kontuan hartu gabe. Horretarako, lanpostuak sortu dira, ingurumena babestu da, eta osasun-, garraio- eta energia-zerbitzuak hobetu dira.

"I am part of it" lelopean, Europako Lankidetzaren Egunaren helburua herritarrek Europar Batasunak mugaz gaindiko lankidetzaren sustatu eta indartzeko eta horrek lurraldeari eta biztanleei ekartzen dizkien onurak erakusteko burutzen dituen ekintzez jabetzea da. Horretarako, lankidetzaren proiektu zehatz batean parte hartu edo proiektu bat ezagutzeko proposatzen da, jolaserako, kirolerako eta familian egoteko ekintza bihurtuz.

Kanpaina INTERACT programak koordinatzen du Europako Batzordearekin batera. Eskualdeetako lantaldearen eta Europako Parlamentuaren laguntza ere jaso du. Europako Lankidetzaren Eguneko tokiko ekitaldien eta lankidetzaren proiektuen zerrenda honako helbide honetan dago jasota: [www.ecday.eu](http://www.ecday.eu).

### **Circuldouce proiektua**



Circuldouce proiektuaren helburua zirkulazio murriztuko mugaz gaindiko ibilbidea sortzea da Baiona eta Iruña artean. Biak daude sartuta EuroVelo 1 ibilbidean, hau da, Norvegiako Ipar lurmuturretik Portugalgo hegoaldeko Sagres lurmuturrera doan ibilbidean.

Turismo iraunkorrari begira jardun onak sustatzea da asmoa, 60 km-ko hasierako tarte bat egokituz Getaria (Pirinio Atlantikoak) eta Bertiz (Nafarroa) artean.

Gainera, ibilbidea oinez zein bizikletan egiten dutenei harrera egin eta informazioa emateko, 1. ibilbideko harrera-zentroa sortu da Irungo aduanen eraikin zaharrean. Azpimarratzekoa da, jarduerak ingurumenean duen interesaz gain, proiektuak eragin ekonomikoa duela inguru osoan, sektoreko profesional guztientzako zuzeneko onurak ematen dituen turismo mota berri bat garatzea ahalbidetzen duelako. Turismo-produktu berri horrek eskualde honetako aberastasunak ezagutu nahi dituztenak erakartzen ditu bestelako modu batean, ingurumenarekiko errespetu handiagoa izanik.

### **Pirinioetako Lan Elkartearen partzuergoa**

Pirinioetako Lan Elkartearen partzuergoa Aragoi, Katalunia, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa autonomia erkidegoek eta Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon eskualdeek eta Andorrrak osatzen dute. Elkartea Europako Batzordeak eta estatuek izendatu zuten Espainia, Frantzia eta Andorrraren arteko mugari loturiko Europako programa hau kudeatzeko: 2007-2013 denboraldirako Espainia, Frantzia eta Andorrraren arteko Eskualde Mailako Lankidetzaren Programa Eragilea (POCTEFA). 2011ko urritik hasita, 2 urtetarako, PLE-ren lehendakaritza Nafarroako Foru Komunitateak du.

PLE Europako mugaz gaindiko lankidetzen alorrean lehen mailako eragilea da, eta Europako programa bat kudeatzen duen Europako mugaz gaindiko lehen erakundea da.

Programaren bidez Espainia, Frantzia eta Andorrraren arteko mugez inguruko bateratze ekonomikoa eta soziala indartzera bideratu den Europako laugarren belaunaldiko finantza-babesa ematen da. FEDERen aurrekontua 168 milioi eurokoa da. Laguntza mugaz gaindiko ekonomia, gizarte eta ingurumenari loturiko jarduerak garatzeko erabiltzen du gehienbat, lurralde-garapen iraunkorraren aldeko estrategia bateratuak gauzatu. Gainera, programaren xedea herritarrek mugaz gaindiko ingurua bakartzat jotzea eta mugak sortzen duen eragina murriztea izan behar da.

2007tik 133 proiektu onetsi dira POCTEFA programaren barruan, mugaz gaindiko lurraldeetan. Proiektu horien bidez lurraldeak ekonomiaren, berrikuntzaren eta giza kapitalaren alorrean garatzeko ekintzak jartzen ditu abian, baita lurraldeei eta natura- eta kultura-ondareari balioa emateko ere. Beste batzuen helburua biztanleen bizi-kalitatea hobetzea da, lurraldea egituratzeko estrategia komunez baliatuz. Guztiek, hala ere, garapen iraunkorra lortzea dute ardura nagusia, ingurumen-baliabideak babestu eta hobeto kudeatzeko.